

MUSIKA BIDEOKLIPAK BEREZIAK PROGRAMAZIOA SAIOAK FREKUENTZIAK ZOZKETAK GAD(


Top Gaztea Top Dance

MUSIKA GAUR

Kalakan taldeak irekiko du Astigarragako sagardo denboraldia

LUZIA ZUGADI ERREDAKZIOA 2014/01/15

Eguerdian abiatuko da sagardo denboraldia, Astigarragako Alorrenea sagardotegian.



Tweet

6



Partekatu

g+1

Share

Iruzkina

Madonna abeslariarekin munduan barrena biran aritu ostean, Kalakan taldea Euskal Herrian izango dugu berriro, Astigarragako sagardo denboraldiari hasiera emateko. Hain zuzen ere, **gaur irekiko dute denboraldia, eguerdian hasiko den egitarauarekin.**

Hogeita batgarren edizio honetan, Astigarragako Alorrenea sagardotegian egingo dute txotx aurrenekoz. Kalakan taldearen eskutik, "gure sagardo berria" oihua entzungo da han, eta orduantxe zabalduko dute denboraldiko lehenengo kupela.

Aurretik, urtero bezala, Sagardoetxea Museoan, sagarrondo bat landatuko dute.

Iaz, La Oreja de Van Gogh taldeak eman zion hasiera sagardo denboraldiari, eta duela bi urte Julian Iantzik. Besteak beste, Karlos Arguiñano, Real, Aimar Olaizola, Andoni Luis Aduriz, Juan Martinez de Irujo, Jose Luis Korta eta Ainhoa Arteta ikusi ditugu azken urteotan urteko lehenengo sagardoa dastatzen.

Esan bezala, aurten Kalakan arduratuko da denboraldia zabaltzeaz, baina ekitaldian Andoni Gartzia Astigarragako alkatea ere izango da. 2013ko uzta nolakoa izan den azaldu, eta sagardoaren munduan jazotako gertaera garrantzitsuenen berri emango du Gartzia.

Iruzkina

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA



New Balance -40% !

REBAJAS ! New Balance hasta -40% en Spartoo.es ! Entrega gratuita.



¿Eres IT informático?

Consigue el grado oficial en Ingeniería informática. 3 asignaturas y online. Infórmate ahora!



Los médicos odian a este padre

Padre español desvela el secreto para perder peso super rápido desde 39 €. Lee el artículo...

Publicidad  Ligatus



